

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta Nafarroako Gobernuaren Adierazpen Instituzionala

Gaurko batzarrean onartu du Nafarroako Gobernuak

Asteazkena, 2018.eko martxoak 7

Nafarroako Gobernuak gaurko batzarrean, bihar, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan honako adierazpen instituzionala onartu du:

"**GENERO BERDINTASUNA** eskubide eta betebeharrak bat da bere burua demokratikotzat duen gizarte ororendako. Nafarroako Gobernuak horrela dela uste du eta, ildo horretan, martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna delarik, berretsi nahi du konpromisoa duela berdintasun politikak bultzatzeko, egungo defizit demokratikoa desagerrarazteko asmoz. Izan ere, egungo egoera honetan oraindik ere badira barneko zein kanpoko zenbait oztopo emakumeek gizartean, ekonomian, lanean eta politikan duten parte-hartzea ikusezin bihurtu eta aintzat hartzen ez dutenak.

Testuinguru honetan, Nafarroako Gobernua bat dator NBE Emakumeak erakundeak aurtengo hautatu duen goiburuarekin, "**Hauxe da garaia: hirietako eta herrietako emakume ekintzaileak emakumeen bizitza aldatzen ari dira**", eta bat egin nahi du eredu sozial, bidezko, demokratiko eta berdinzale berri baten alde lanean ari den aurrekaririk gabeko mundu mailako mugimendu indartsuarekin. Nafarroako Gobernuak bere egiten ditu greba feministan berdintasunaren, emakumeen eskubideen eta, ondorioz, justizia sozialaren alde plazaratu diren aldarrikapenak. Helburua da emakumeen lan guztia agerian jartzea eta emakume izate soilagatik jasaten ditugun desberdinkeriak, genero diskriminazioa eta indarkeria deuseztatzea. Erabat **ildo horretakoak** dira Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eguneroko lana eta erakunde horrek gauzatzen dituen proiektuak; baita Nafarroako Gobernu osoan

zeharkakotasunez bultzatu eta garatzen ari den **berdintasunezko politika publikoa** ere.

Emakumeak haurtzarotik ahalduntzea ardatz nagusietako bat izan behar da berdintasuna lortzeko eta, horregatik, Gobernu honek konpromisoa hartu du estandarrak eraginkortasunez ezartzeko behar diren politika, programa eta zerbitzuak egiteko, Nafarroako emakume eta neskentzat onuragarri gerta daitezten.

Ahalduntzea prozesu banakakoa eta, aldi berean, kolektiboa da. Eta horixe azpimarratu da Nafarroako Gobernuak lehen aldiz, martxoaren 8a dela-eta, aurrean abiarazi duen sentsibilizazio kanpainan, zeinak goiburu

hau baitu: *“Zure ahalduntzea berdintasuna lortzeko gakoa da_Egizu”*. Kanpaina honen xedea da balio sozialen transformazio prozesu bat sustatzea, erreferentzia-eredu estereotipatuak gaindituz eta herritar guztien aldeketasunarekin espektatiba positiboak sortuz emakumeen lidergo eta parte-hartze errealak lortzeko: guztiok ere moldatzen baitugu bizi dugun gizarte hau.

Gainera, Nafarroako Gobernua lanean ari da jada Nafarroako emakume eta gizonen berdintasunerako Foru Legerako proiektuarekin. Foru Lege horrek generoko ikuspegi eta zeharkakotasuna ezarriko ditu politika publiko ororen korrante nagusi gisa. Halaber, herritarrak osoki inplikatuko ditu, emakumeen autonomia eta parte-hartze aktiboa sustatzeko lanean, aurrerabidea atzeraezina izan dadin.

Nafarroako Gobernua tinko ari da berdintasunezko aurrerabide hori gauza dadin, sinesmen eta irmotasun osoz. Halaber, gainerako erakundeei eta gizarteari bere osotasunean dei egiten die martxoaren 8 honetara bildu daitezen, emakumeen lana bistaratzeko mundu mailako aldarrikapen eguna baita, hain zuzen ere, arlo publiko zein pribatuan benetako berdintasuna erreklamatzeko, bizi dugun mundu hau eta emakumeen bizitza eraldatzeko, desberdinkeriekin, diskriminazioarekin eta genero indarkeriarekin bukatzeko eta emakume orendako eskubideak aldarrikatzeko”.